



## **Trebakuntza 2008/09: LABURTZAPENAK (II): LABURDURAK ETA IKURRAK**

Udal idazki askotan laburtzapenak gaizki erabili ohi dira. Aurreko fitxan, siglei buruz aritu ginen. Gaurkoan, beste bi laburtzapen motei buruz ariko gara: laburdurak eta ikurrak

### **AZALPEN OROKORRAK**

#### **1.- LABURDURAK**

**Adibideak:** tel. (=telefonoa), zenb./zk. (=zenbakia), ezk. (=ezkerra), esk. (=eskubia), e. a./etab. (=eta abar), z. g. (=zenbaki gabea) eta beste asko.

**Erabilera:** hitz arruntak laburtzeko erabiltzen dira, baina hitz osoak irakurtzen dira.

**Idazkera:** puntua hartzen dute amaieran.

**Deklinazioa:** deklinatzean, hitz osoak idaztea komeni da.

#### **2.- IKURRAK**

**Adibideak:** h (=altuera edo ordua), cm (=zentimetro), m (=metro)...

**Erabilera:** nazioarteko balioa duten zientzia eta teknikako unitateak dira; esate baterako, fisikako unitateak adierazteko erabiltzen dugu.

**Idazkera:** ez dute punturik hartzen.

**Deklinazioa:** marrarekin deklinatzen dira. Kasu marka hitz osoari jarriko bagenio bezala jarri behar da: 2 m-ko (=bi metroko), 2 h-ra (bi ordura).

**OHARRA:** Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.



## OHIKO AKATSAK

1. \*Helbidea: Samaniego kalea 48, 4. **ezk**
2. \* **Tfnoa:** 943260372. **Fax.:** 943260510.
3. \*Entzun dut **zuz.-arekin** egin behar dutela bilera.
4. \* [Inprimaki batean] **Zbkia.:** 129867
5. \* Eskatzaileak **2 m.-ko** atea jarri beharko du.
6. \* Hesitik hesira **50 zm.-ko** tartea jarri behar da.

## ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **Laburdurak puntuz** idatzi behar dira; hain zuzen ere, laburdura dela adierazteko.

Ad. Helbidea: Samaniego kalea 48, 4. **ezk.**

2. Laburdurak **ez daude araututa**, baina denek laburdura berak erabiltze komeni denez, forma jakin batzuk adostu eta bultzatu dira. Adibidez, tel. (=telefonoa). Faxa, berriz ez da laburdura, hitz osoa baizik.

Ad. **Tel.:** 943260372. **Faxa:** 943260510.

3. Laburdurak deklinatzean, **hitz osoak** idaztea komeni da. Izan ere, bestela, honako formak idatzi beharko genituzke: zuz.arekin, zenb.etako...

Ad. Entzun dut **zuzendariarekin** egin behar dutela bilera.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



4. “Zenbakia” hitzerako, “**zenb.**” Edo “**zk.**” laburdura dago adostuta.

Ad. [Inprimaki batean] **Zenb./Zk.:** 129867

5. Ikurrek ez dute punturik behar. Izan ere, horixe da laburduretatik bereizteko modua.

Ad. Eskatzaileak 2 **m-ko** atea jarri beharko du.

6. Ikurrak nazioartekoak dira. Horregatik, ikurrek ez dute, berez, loturarik euskarazko ortografiarekin. Adibidez, zentimetroen ikurra **cm** da (ingelesezko “centimetre” hitzetik eratorria), baina hitz osoa idaztean **zentimetro** idatzi behar da.

Ad. Hesitik hesira 50 **cm-ko** tartea jarri behar da.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)